



**UNBEKO SAIHESBIDEKO UNBEGANA-  
POZOZABALE-MENDIONDO TARTEAREN  
BIDEEN PLAN BEREZIAREN INGURUMEN  
EBALUAZIORAKO ERREFERENTZIA AGIRIA**

Ingurumen ebaluazioa estrategikoa egin behar duten planen zerrenda ezartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko I A) Eranskinarekin bat etorri, administrazio prozedura hori egingo dute legez ingurumeneko eraginaren ebaluazioari lotuta egongo diren proiektuen etorkizuneko baimenentarako markoa ezarriko duten plan eta egitarauak.

Plan eta egitarau jakin batzuen ondorioak ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 9. artikuluan eta plan eta egitarauen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura erregulatu duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan adierazi denaren arabera, ingurumeneko iraunkortasunaren txostenaren hedakuntza, zehaztasun maila eta espezifikitate gradua ingurumeneko organoak ezarriko du. Erabaki hori administrazio publiko ukituak eta jende interesduna identifikatu ostean eta horiei kontsultak egin ondoren hartuko du eta erreferentziako agiria jaulkiz gauzatu da. Agiri horrek, halaber, ingurumeneko irizpide estrategikoak, ingurumeneko helburuen adierazleak eta, hala denean, kasu bakoitzean aplikagarriak izango diren iraunkortasun oinarriak jasoko ditu. Horiek ez ezik, ingurumeneko organoak informazioak eta kontsultak egiteko modalitateak definitu behar ditu.

Ondorioz Ingurumeneko Foru Sail honek, Ingurumena Babesteko Euskadiko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 44. artikulua bidez eman zaizkion eskumenak erabiliz eta, aldi

**DOCUMENTO DE REFERENCIA PARA LA  
EVALUACIÓN AMBIENTAL DEL PLAN  
ESPECIAL VIARIO DEL CORREDOR DE UNBE  
TRAMO UNBEGANA-POZOZABALE-  
MENDIONDO.**

De conformidad con el Anexo I A) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, que establece la lista de planes y programas sometidos al procedimiento de evaluación ambiental estratégica, serán sometidos a este procedimiento administrativo los planes y programas que establezcan el marco para la futura autorización de proyectos legalmente sometidos a evaluación de impacto ambiental.

En virtud de lo establecido en el artículo 9 de la Ley 9/2006 de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente y en el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, el alcance, nivel de detalle y el grado de especificidad del Informe de Sostenibilidad Ambiental se determinará por el órgano ambiental, tras identificar y consultar a las Administraciones Públicas afectadas y al público interesado, mediante la emisión de un documento de referencia que incluirá además los criterios ambientales estratégicos e indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad aplicables en cada caso. Asimismo, el órgano ambiental deberá definir las modalidades de información y consulta.

En consecuencia, corresponde al Departamento Foral de Medio Ambiente, en el ejercicio de las atribuciones conferidas por el artículo 44 de la Ley 3/1998, de 27 de



berean, plan eta egitarauen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura erregulatu duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan ezarri denarekin bat, ingurumenerako ondoreekin baino ez Unbeko Saihesbideko Unbegana-Pozozabale-Mendiondo Tartearen Bideen Plan Berezia delakoari dagokionez, ondoko Erreferentzia Agiri hau formulatu du:

### **1.- AURREKARIAK ETA EGIN DIREN KONTSULTAK.**

Herri Lan eta Garraio Saileko Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak, Ingurumen Foru Saileko erregistroan 2012ko urriaren 22ko sarrera izan zuen idazkiaren bidez, Unbeko Saihesbideko Unbegana-Pozozabale-Mendiondo Tartearen Bideen Plan Bereziaren ingurumen ebaluaziorako erreferentzia agiria jaulkitzeko eskabidea egin zuen.

9/2006 Legeko 9. artikuluan adierazi diren aurretiazko kontsulten tramitean zehar kontsultak egin zaizkie ondoko erakunde eta izakiei:

- Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua. Ingurumen Zuzendaritza Nagusia. Ingurumen Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Nekazaritza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusia. Lehendakari Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Kultura Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza

febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y de acuerdo, asimismo, con el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, formular el Documento de Referencia, a los solos efectos ambientales y en relación al Plan Especial Viario del corredor de Unbe tramo Unbegana-Pozozabale-Mendiondo.

### **1.- ANTECEDENTES Y CONSULTAS REALIZADAS.**

La Dirección General de Infraestructuras Viarias del Departamento Foral de Obras Públicas y Transportes, con fecha de entrada en el registro del Departamento Foral de Medio Ambiente de 22 de octubre de 2012, solicita la emisión del documento de referencia para la evaluación ambiental del Plan Especial Viario del corredor de Unbe tramo Unbegana-Pozozabale-Mendiondo.

Los siguientes organismos y entidades han sido consultados durante el trámite de consultas previas establecido en el artículo 9 de la Ley 9/2006:

- Servicio de Patrimonio Natural. Dirección General de Medio Ambiente. Departamento de Medio Ambiente. Diputación Foral de Bizkaia.
- Departamento de Agricultura. Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Relaciones Municipales y Urbanismo. Departamento de Presidencia. Diputación Foral de Bizkaia.
- Departamento de Cultura. Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial,



Saila. Eusko Jaurlaritzaz.

- Ingurumenaren Kalitate Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritzaz.

- Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritzaz.

- Garraioen Azpiegiturarako Zuzendaritza. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritzaz.

- Lurraldearen Antolakuntzarako Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritzaz.

- Ingurumen Plangintzarako Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritzaz.

- URA, Uraren Euskal Agentzia.

- Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzaz.

- Larrialdiei Aurregiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza. Herrizaingo Saila. Eusko Jaurlaritzaz.

- Osasun Publikoaren Zuzendariordetza. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzaz.

- EEE, Energiaren Euskal Erakundea.

- IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.

- Zerbitzuen Uribe Kostako Mankomunitatea.

- Zerbitzuen Uribe-Butroeko

Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.

- Dirección de Calidad Ambiental. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.

- Dirección de Desarrollo Rural y Litoral. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.

- Dirección de Infraestructura del Transporte. Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes. Gobierno Vasco.

- Dirección de Ordenación del Territorio. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.

- Dirección de Planificación Ambiental. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.

- Agencia Vasca del Agua, URA.

- Departamento de Cultura. Gobierno Vasco.

- Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología. Departamento de Interior. Gobierno Vasco.

- Subdirección de Salud Pública. Departamento de Sanidad. Gobierno Vasco.

- EVE, Ente Vasco de la Energía.

- Sociedad Pública de Gestión Ambiental, IHOBE.

- Consorcio de Aguas de Bilbao Bizkaia.

- Mancomunidad de servicios de Uribe Kosta.

- Mancomunidad de servicios de Uribe-



Mankomunitatea.

- Berangoko Udala.

- Erandioko Udala.

- Loiuako Udala.

- Sopelanako Udala.

- Urdulizko Udala.

- EUDEL, Euskal Udalen Elkarte.

- EHNE, Euskal Herriko Nekazarien  
Elkartasuna.

- Ekologistak Martxan.

Halaber, planari dagokionez eskuragarri dagoen dokumentazioa jende interesdun guztiaren esku egon da Bizkaiko Foru Aldundiaren web orrian, hau da, [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net) helbidean, jende interesatua identifikatzeko helburu berberekin, 9/2006 Legeak ezarri duena betez.

Ezarri zen epea amaitu ondoren ondoko erantzun hauek jaso ziren:

1ª) Eusko Jaurlaritzako Ondare Kulturalaren Zuzendaritzak adierazi du proiektuaren esparruan, edo bere inguruetan, Briñas iturria dagoela (Urduliz), udal mailan babestua izateko proposatuta dagoen ondasun higiezina, eta mota horretako ondasunetarako dauden aholkuak adierazten ditu. Beste alde batetik, lanen jarraipen arkeologikoa egiteko gomendioa egiten du.

2ª) Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak, labor bilduta, ondokoa adierazi du:

a) Alternatiben analisiak landaretza-

Butroe.

- Ayuntamiento de Berango.

- Ayuntamiento de Erandio.

- Ayuntamiento de Loiu.

- Ayuntamiento de Sopelana.

- Ayuntamiento de Urduliz.

- Asociación de municipios vascos EUDEL.

- Sindicato Agrario EHNE.

- Ekologistak Martxan.

Asimismo, la documentación disponible del plan ha sido expuesta al público interesado en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia (<http://www.bizkaia.net/evaluacion>) con el fin de identificar al público interesado, de acuerdo con el contenido de la Ley 9/2006.

Finalizado el plazo establecido, se han recibido las siguientes respuestas:

1ª) La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco señala que en el ámbito del proyecto, o en sus proximidades, se encuentra la Fuente de Briñas (Urduliz), bien inmueble propuesto para ser protegido a nivel municipal y señala las recomendaciones para este tipo de bienes. Por otro lado, se recomienda realizar un seguimiento arqueológico de los trabajos.

2ª) La Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco, sintetizando, señala lo siguiente:

a) El análisis de alternativas debe incluir un

formazioen azterlan xehekatuagoa egin behar du, euren erantzunean azaltzen dituzten gai eta alderdi batzuk aintzat hartuta.

b) Ezar daitezkeen ustezko konpentsaziozko neurriei buruzko iruzkin batzuk egiten ditu.

c) Soberakinen biltegiak eraginen analisiaren barruan sartu behar dira, maila guztietan, alegia.

d) Planak mehatxatuta dagoen landaretzari buruzko berariazko atal bat sartu behar du, eta berariazko prospekzioak egin behar dira. Azpimarratu egiten du hurbileko esparruan mehatxatuta dagoen landaretzako *Narcissus triandrus subsp. triandrus* eta *Ilex aquifolium* espezieak daudela.

e) Egingo diren ingurumeneko azterlanetan kontuan hartu beharko dira, bereziki, euren erantzunean aipatzen diren faunako espezieak eta nabarmen hobetu beharko da aztertu den agirian egin den gaiarekiko azaleko hurbilketa.

f) Gomendio moduan esaten du azaldu diren horietatik aparte maileguak eta soberakinak kudeatzeko beste alternatiba batzuk aztertu behar direla. Azkenean kudeaketari ekiteko alternatiba adierazi den hori bada betelanak egiteko izaera orokorreko neurri batzuk gomendatzen ditu.

3ª) Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak jakinarazten du planaren esparruan hornikuntzako lehen mailako sareko biderakuntzak daudela; esaten du ez dagoela saneamenduko lehen sareko kolektorik eta adierazi du ustezko ukipena egon daitekeela udal titulartasuneko saneamenduko gaur egungo edo planifikatutako instalazio batzuekiko (Laukiz). Azkenik, aipatu diren hornikuntzako biderakuntza horiek ukituz gero edo kolektore baten isurketak eginez

estudio más detallado de las formaciones vegetales, considerando una serie de cuestiones expuestas en su respuesta.

b) Realiza una serie de consideraciones respecto a las posibles medidas compensatorias a implantar.

c) Los depósitos de sobrantes deben formar parte del análisis de impactos a todos los niveles.

d) El plan debe incorporar un apartado específico relativo a flora amenazada y realizar prospecciones específicas. Destaca que en el ámbito cercano se han citado las especies de flora amenazada *Narcissus triandrus subsp. triandrus* e *Ilex aquifolium*.

e) Los estudios ambientales que se realicen deberán tener en cuenta, especialmente, las especies de fauna mencionadas en su respuesta, avanzando sustancialmente respecto al somero acercamiento realizado en el documento analizado.

f) Recomienda que se analicen otras alternativas de gestión de préstamos y sobrantes adicionales a las expuestas. Si finalmente la alternativa de gestión es la manifestada, recomienda una serie de medidas de carácter general para la ejecución de rellenos.

3ª) El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia informa sobre la existencia de conducciones de la red primaria de abastecimiento en el ámbito del plan, señala que no existen colectores de la red primaria de saneamiento y observa una posible afección a instalaciones actuales o planificadas de saneamiento de titularidad municipal (Laukiz). Por último, especifica los pasos a seguir en el caso de afectar a las conducciones de abastecimiento señaladas y

gero burutu beharreko urratsak zehazten ditu.

4ª) Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzak planteatu diren alternatiba horiek nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako sektorean izango dituzten eraginaren ebaluazioa egiteko gomendatu du.

5ª) IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak ustez lurzorua kutsatzen duten jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan sartuta dauden lurzatiak identifikatu ditu. Halaber, artean argitaratu gabe dauden inbentario hori eguneratzeko osteko lanen arabera erregistratu diren aldarazpenei buruzko informazioa eman du. Azkenik, adierazi du 48053-00002 kodearekin erregistratuta dagoen kokapenean jarduketak egin direla “Unbegaina -Infisal” eta “Hondakindegia pribatu inaktiboak” izena duten espedienteen barruan.

6ª) Kultura Foru Saileko Kultura Ondarea Zerbitzuak baieztatu egin du ez dagoela kalifikatutako edo inbentarioan sartutako kultur ondasun arkitektonikorik eta arkeologikorik edo arkeologiari dagokionez ustez garrantzia izan dezakeen alderik. Azkenik, uste du derrigorrezkoa dela, obraren betearazpenari ekin aurretik, lurren eduki arkeologikoa ebaluatzeko aukera emango duten azterlan bat egitea.

7ª) Loiu Udalak iruzkin eta ohar batzuk egin ditu eta plana egiterakoan kontuan hartzeko moduko kontzeptu eta ideia batzuk aurkeztu ditu. Amaitzeko, saihesbidetik gaur egungo Artetabarrira sarbidea mantentzeko eskatu du.

8ª) URA, Uraren Euskal Agentziak, ondokoa

en el caso de vertidos a algún colector.

4ª) La Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco recomienda efectuar una evaluación de la afección sectorial agraria ocasionada por las diferentes alternativas planteadas.

5ª) La Sociedad Pública de Gestión Ambiental, IHOBE identifica parcelas incluidas en el Decreto 165/2008, de 30 de septiembre, de inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo. Asimismo, informa sobre modificaciones registradas de acuerdo a trabajos posteriores de actualización del inventario aún no publicados. Por último, señala que en el emplazamiento registrado con el código 48053-00002 se han realizado actuaciones dentro de los expedientes denominados “Alto de Unbe-Infisal” y “Vertederos privados inactivos”.

6ª) El Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Cultura confirma la inexistencia de bienes calificados o inventariados arquitectónicos, de bienes calificados o inventariados de carácter arqueológico y de zonas de presunción arqueológica. Por último, considera imprescindible la realización de un estudio que permita evaluar el contenido arqueológico de los terrenos, como paso previo a la ejecución de la obra.

7ª) El Ayuntamiento de Loiu realiza una serie de consideraciones y aporta conceptos e ideas para tener en cuenta en la elaboración del plan. Por último, demanda que se mantenga el acceso desde el corredor al actual camino de Artetabarri.

8ª) La Agencia Vasca del Agua, URA destaca



azpimarratu du:

a) Unbetik hurbil kokatuta dagoen ur guneari dagokionez (kodea: 30000069), esaten du ukitua izan daitekeela planteatu den proiektutik hurbil dagoelako eta, beraz, horren kokapen zehatza frogatzea proposatu du, eta baita gaur egun duen erabilera zein den jakitea ere. Ostean horrekiko eraginak saihesteko bidezko neurriak hartu ahal izango dira.

b) Azpimarratu egiten du soberakinen biltegien kokapenerako alternatiben azterlan xehekatuagoa aurkeztu behar dela, hots, URA, Uraren Euskal Agentziak kontuan hartu behar dituen ustezko baldintzak zuzen jasoz.

c) Plana garatzeko agirien irizpide eta zuzentarau moduan ondoko hauek ezarri dira:

- Obrako bide osagarrien kokapena zehaztuko da; kontuan hartu behar da horien trazadurek ezin dutela eragin era guztietako ubideen inolako zuzenketarik eta biderakuntzarik.

- Aintzat hartu behar da obrako instalazio osagarrien kokapena; instalazio horiek beti kokatuko dira zortasun aldeetatik kanpo, uholdeen eraginari lotuta dauden aldeetatik kanpo eta egon dagoen ibai ertzeko landaretza zaindu beharko dute. Azken finean, egoera naturalean dauden ubideetatik 5 metroko zortasuneko gutxieneko distantzia mantenduko da eta seinatzeko zinta erabiliz balizatuko da.

- Gogorarazi egiten du uren arloko indarreko arautegiak ezarri duenarekin bat hala herri jabarritza hidraulikoan nola horien zortasun eta polizia aldeetan egingo diren jarduketak guztiek, eta baita ur aprobetxamendu eta isurketa guztiek ere, aldeztu aurretik

lo siguiente:

a) Respecto al punto de agua localizado en las inmediaciones de Unbe (código 30000069), señala que podría verse afectado, dada su proximidad al proyecto planteado, por lo que propone comprobar la situación exacta del mismo, así como su uso actual, de manera que se puedan tomar las medidas oportunas para evitar afecciones al mismo.

b) Incide en que se deberá presentar un estudio más pormenorizado de las alternativas sobre la ubicación de los depósitos de sobrantes, recogiendo correctamente los posibles condicionantes a tener en cuenta por parte de la Agencia Vasca del Agua URA.

c) Como directrices para los documentos de desarrollo del plan señala las siguientes:

- Se especificará la ubicación de los caminos auxiliares de obra, teniendo en cuenta que su trazado debe excluir la rectificación y canalización de los cauces de cualquier orden.

- Contemplar la ubicación de las instalaciones auxiliares de obra, que se deberán ubicar siempre fuera de la zona de servidumbre, en áreas que no se vean afectadas en caso de avenidas, y deberán respetar la vegetación de ribera existente. Se mantendrán, en definitiva, las franjas mínimas de servidumbre de 5 metros del cauce en estado natural y libres, balizándolas con cinta señalizadora.

- Recuerda que, de acuerdo con la normativa vigente en materia de aguas, toda actuación que se realice tanto en dominio público hidráulico como en sus zonas de servidumbre y policía, así como aprovechamientos de agua y vertidos, requerirán previa



administrazioaren baimena beharko dutela.

9ª) Ingurumen Foru Sail honetako Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak ondokoa adierazi du:

a) Era egokian ebaluatu beharko diren ingurumeneko balore hauek azpimarratu behar dira:

- Planak, gutxienez, erreka bat ukitzen du bere iturburuan eta beste bat bere hasierako tartean (Urduliz), eta horiek interes berezikotzat jota daude bisoi europarra kontserbatzeko plan berezian. Herri jabaritzaren hidraulikoaren eta bere zortasunaren gainerako atalak (gainerako errekaak) bisoi europarra kudeatzeko esparrua dira eta hor, hau guztia gorabehera, obrak bisoi europarraren beharkizunen arabera antolatu eta egokitu beharko dira.

- Plana eta proiektua paisaia singularren inbentarioan sartuta dagoen alde baten daude kokatuta.

- 4030 Europako txilardi lehorrak habitata ukitzen da.

- Harizti txiki batzuk eta haritzak leheneratzeko edo ale gazteak dituen alde batzuk ukitzen dira.

b) Azterlan xehekatuak aurkeztu behar dira, espezialistek eginda egongo direnak, errepideak ukitzen dituen errekaetara dagokienez, ondoko hauek antzematearen ondoretarako:

- Iratze paleotropikalak. Bereziki *Woodwardia radicans*.

- Bertoko karramarroa.

c) Unbeko Saihesbideak bermatu egin behar du era egokian beteko direla Bisoi Europarraren Kudeaketa Plana Bizkaian

autorización administrativa.

9ª) El Servicio de Patrimonio Natural de este Departamento Foral de Medio Ambiente señala lo siguiente:

a) Se destacan los siguientes valores ambientales que deberán ser adecuadamente evaluados:

- El plan afecta al menos a un arroyo en cabecera y un arroyo en la parte inicial (Urduliz) considerados áreas de interés especial para la conservación del visón europeo. El resto del Dominio Público Hidráulico y su servidumbre (resto de escorrentías) son ámbito de gestión donde, en todo caso, se deben adecuar las obras a los requerimientos del visón europeo.

- El plan y proyecto se encuadra en una zona incluida en el inventario de paisajes singulares.

- Se afecta al hábitat 4030 Brezales secos europeos.

- Se afecta a pequeños bosquetes y zonas de regeneración o fases juveniles de robledal.

b) Se deben incluir estudios detallados, elaborados por especialistas, de los arroyos afectados por la carretera para detectar:

- Helechos paleotropicales. En particular *Woodwardia radicans*.

- Cangrejo autóctono.

c) El corredor de Unbe debe garantizar un adecuado cumplimiento de los objetivos y directrices del Plan de Gestión del visón



delakoan ezarri diren helburuak eta zuzentarauak; ondore horietarako bideen plan bereziaren barruko dokumentuetan jarraian adieraziko diren gaiak eta baldintzak inkorporatuko dira, eta gauza bera egingo da saihebidetaren proiektuekin berarekin, eta horren memorian eta planoetan ondoko hauek agertuko dira jasota:

- Bisoi europarra artatzeko interes bereziko aldeak ukituko dituzten betelanak kentzea, hala galtzadari eustekoak nola soberakinen biltegiakoa.

- Bermatu egin behar da Butroe ibaiaren arroko errekaetara egingo diren gainerako betelan eta lur mugimendu guztiek ez dutela interes bereziko aldean egoera ekologikoak txarrera egitea eragingo. Helburu hori lortzeak izan ditzakeen zailtasun teknikoak kontuan hartuta uste da beharrezkoa dela aurkeztu diren alternatibetatik aparteko beste bat aintzat hartzea, hau da, trazadura berria proposatu diren lur-berdinketak eta betelanak arinduko dituen, eta errepide berria lur mugimendu gutxiago eragingo duen beste alternatiba bat hautatzea. Aukera honek, halaber, eragin gutxiago izango luke paisaian, txikitu egingo liratekeelako ezponden eta lur-berdinketen tamainak.

d) Azkenik, Bisoi Europarra Kudeatzeko Planeko 9. artikuluan eta dokumentazio hori jaulkitzeko ezarri diren irizpideetan ezarri den baimena eskuratzeko igorri behar den dokumentazioa ezarri du.

9/2006 Legeko 9. artikulua betetze aldera, kontsultatutako erakundeak eragindako administrazio publiko gisa eta publiko interesatu gisa identifikatu dira. Era berean, txosten honetako edukia publikoa dela jasota geratu da..

Plan eta egitarauen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura erregulatu duen

europarra en Bizkaia, para lo que debe incorporar las siguientes cuestiones y condiciones a los documentos del plan especial viario, así como al propio proyecto del corredor, debiendo reflejarse tanto en la memoria como en los planos del mismo:

- Suprimir los rellenos, tanto los de soporte de la calzada, como los depósitos de sobrantes, que afecten a áreas de interés especial para la conservación del visón europeo.

- Debe garantizarse que el resto de rellenos y movimientos de tierras que se realicen en el resto de escorrentías de la cuenca del Butrón no supongan un empeoramiento del estado ecológico de las áreas de interés especial. Teniendo en cuenta la dificultad técnica que puede suponer el logro de este objetivo se estima necesaria la consideración de una alternativa diferente a las aportadas que minimice los desmontes y rellenos propuestos en el nuevo trazado, optándose por un menor movimiento de tierras en la nueva carretera. Esta opción significaría también una menor afección paisajística al disminuir el tamaño de los taludes y desmontes.

d) Finalmente, señala la documentación que se deberá remitir para la obtención de la autorización prevista en el artículo 9 del Plan de Gestión del visón europeo y los criterios previstos para su emisión.

En cumplimiento del mandato del artículo 9 de la Ley 9/2006, quedan identificados los organismos consultados como administraciones públicas afectadas o público interesado, haciendo constar que el contenido del presente informe es público.

La entrada en vigor del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el



urriaren 16ko 211/2012 Dekretua indarrean jartzearen ondorioz indargabetu egin zen ingurumeneko eraginaren ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua, salbu eta 2012ko azaroaren 20an hasierako onespena edo administrazioko lehen onspena zuten plan edo egitarauen kasuan. Unbeko Saihesbidearen Bideen Plan Berezia, Unbegana-Pozozabale-Mendiondo tartean, ez dago goian adierazi den egoera iragankorraren barruan sartuta eta, beraz, ingurumeneko organo honen ustez 211/2012 Dekretu berria da aplikatu behar dena.

Igorri den dokumentazioa aztertu ondoren ingurumeneko organo honek egiaztatu zuen ez zuela 211/2012 Dekretu berriko 8. artikuluan ezarri den ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari ekiteko beharrezkoa den manuzko informazio guztia. Horren berri eman zitzaion, 2012ko abenduaren 20an, Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiari, eta aipatu berri den 211/2012 Dekretuko 8. artikuluan ezarrita dagoen Hasiera Agiria eskatu zitzaion.

Herri Lan eta Garraio Saileko Bide Azpiegituren zuzendari nagusiak "Unbeko Saihesbidearen Unbegana-Pozozabale-Mendiondo tarteko Bideen Plan Bereziaren Hasiera Agiria" izenburua duen agiria igorri zuen 2013ko urtarrilaren 20an.

Herri Lan eta Garraio Saileko Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiko Ingurumenaren Iraunkortasunerako Ataleko buruak 2013ko otsailaren 28an igorri zuen, era egokian beteta, 211/2012 Dekretuko V. eranskineko formularioa.

Plan Bereziaren helburua Unbeko gaur egungo saihesbidearen baldintzak hobetzea

procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, ha derogado expresamente el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regulaba el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, salvo para aquellos planes y programas que contaran con una aprobación inicial o una primera aprobación administrativa, a fecha de 20 de noviembre de 2012. El Plan Especial Viario del corredor de Unbe en su tramo Unbegana-Pozozabale-Mendiondo no se encuentra en la situación transitoria reseñada, por lo que este órgano ambiental considera que le es de aplicación el nuevo Decreto 211/2012.

Tras analizar la documentación remitida, este órgano ambiental constató que no contenía toda la información requerida para la iniciación del procedimiento de evaluación ambiental estratégica previsto en el artículo 8 del nuevo Decreto 211/2012, cuestión que transmitió a la Dirección General de Infraestructuras Viarias, con fecha de 20 de diciembre de 2012, solicitando el Documento de Inicio previsto en el artículo 8 del mencionado Decreto 211/2012.

El Director General de Infraestructuras Viarias del Departamento Foral de Obras Públicas y Transportes, con fecha de 30 de enero de 2013, remite el denominado "Documento de Inicio del Plan Especial Viario del corredor de Unbe en su tramo Unbegana-Pozozabale-Mendiondo".

El Jefe de la Sección de Sostenibilidad Ambiental de la Dirección General de Infraestructuras Viarias del Departamento Foral de Obras Públicas y Transportes, con fecha de 28 de febrero de 2013, remite el formulario del anexo V del Decreto 211/2012, adecuadamente cumplimentado.

El objeto del Plan Especial es mejorar las condiciones del actual corredor de Unbe para

da, zertarako-eta Uribe-Kostako saihebidetako trafikoa arintzeko eta, horrela, trafikoa eskaria era ekitatiboagoan banatzeko, batez ere Metropolitiko Oinarrizko Sarearen saturazio kasuak gertatzen direnean. Horretarako uste da beharrezkoa dela BI-2704 errepidearen ezaugarri geometrikoak hobetzea. Zehatzago esanda, jarduketak planteatzen dira ondoko toki hauetan:

- BI-2704 errepideko Unbegana-Pozozabale-Mendiondo tartearen trazadura hobetzea.
- Urdulizko saihebidetaren atal baten definizioa, BI-634 errepidearekin konexioa egin arte.
- Trazaduraren aldagarri baten definizioa Unbeganean.
- Saihebidetan zehar bizikletaz ibiltzeko erreiak ezartzea.
- Sarbideen antolamendua eta gurutzeen hobekuntza.

Aztertutako direnak sei alternatiba izan dira, hau da, proiektuak aukeran ematen dituen hiri abiaduren (60 km/o., 70 km/o. eta 80 km/o.) analisien emaitza direnak. Ondorio moduan esan daiteke alternatibarik aldekoena, ingurumeneko ikuspegiari dagokionez, 3b alternatiba dela (Unbemendin saihebidetik ez duen alternatiba, eta proiektuko abiadura moduan 80 km/o-koa duena gainerako trazaduran). Alternatiba horretarako ezarri den material soberakina 664.984 m<sup>3</sup>-koa da, ubide eta ertz ukituak 23.235 m<sup>2</sup> izango dira, landaretza autoktono ukituari dagokionez azalera 109.661 m<sup>2</sup>-koa da eta balore agrológico altuko lur ukituarena, 26.634 m<sup>2</sup>-koa.

Aipatu behar da udaletako hirigintzako planeamenduetan sartuta dagoela

descargar de tráfico el corredor Uribe-Kosta y así repartir más equitativamente la demanda de tráfico, sobre todo en caso de saturación de la Red Básica Metropolitana. Para ello, se considera necesario mejorar las características geométricas de la carretera BI-2704. En concreto, se plantean una serie de actuaciones en los siguientes puntos:

- Mejora del trazado del tramo Unbegana-Pozozabale-Mendiondo de la carretera BI-2704.
- Definición de parte de la variante de Urduliz, hasta la conexión con la carretera BI-634.
- Definición de una variante de trazado en Unbegana.
- Implantación de arcenes bici a lo largo del corredor.
- Ordenación de accesos y mejora de intersecciones.

Se realiza un análisis de seis alternativas, resultantes del análisis de tres diferentes velocidades de proyecto (60 km/h, 70 km/h y 80 km/h). Se concluye que la alternativa más favorable, desde el punto de vista ambiental, es la alternativa 3b (alternativa sin variante en Unbemendi y con una velocidad de proyecto de 80 km/h en el resto del trazado). Para esta alternativa se prevén 664.984 m<sup>3</sup> de material sobrante, 23.235 m<sup>2</sup> de cauces y márgenes afectados, 109.661 m<sup>2</sup> de vegetación autóctona afectada y 26.634 m<sup>2</sup> de suelo de alto valor agrológico afectado.

Cabe mencionar que los planeamientos urbanísticos municipales ya incorporaron la



trazaduraren okupazioari dagokion Komunikabideen Sistema Orokorraren lurzoruaurreikuspenaren errenkada, hau da, 1996. urteko proiektu batekoa. Bideen Plan Berezi honekin aipatu den errenkada hori hautatu den trazaduraren alternatibari egokitzen zaio.

Halaber, mailegu moduan hartuko den materialaren jatorriaren eta soberan egongo den materialaren destinoen kokapenetako zortzi alternatiba planteatu dira. 4, 5, 6, 7 eta 8 alternatiben funtsa soberakinen biltegi izateko trazaduraren ezkerreko ertza egokitzea da, hain zuzen ere Kasarreina eta Pozozabale arteko tartean.

## **2.- PLANEAN APLIKAGARRIAK DIREN IRAUNKORTASUN OINARRIAK ETA INGURUMENEN HELBURUAK.**

Bideen Plan Berezia egiteko funtsezko oinarri moduan ondoko testu hauetan jasota dauden iraunkortasun oinarriak eta ingurumeneko helburuak hartuko dira:

- a) 211/2012 Dekretua bera, urriaren 16koa; horren bidez plan eta egitarauen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura erregulatu da.
- b) 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa.
- c) Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia 21 Egitaraua.
- d) 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestekoa.
- e) 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duena.
- f) 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Ondare

banda de previsión de suelo para Sistema General de Comunicaciones correspondiente a la ocupación de la traza de un proyecto de 1996. Con este Plan Especial Viario se ajusta dicha banda a la alternativa de trazado seleccionada.

Asimismo, se plantean ocho alternativas de ubicación en las proximidades de la traza para el origen de material de préstamo y el destino de material sobrante. Las alternativas 4, 5, 6, 7 y 8 consisten en el acondicionamiento de la traza en su margen izquierda en el tramo entre Kasarreina y Pozozabale para el depósito de sobrantes.

## **2.- PRINCIPIOS DE SOSTENIBILIDAD Y OBJETIVOS AMBIENTALES APLICABLES AL PLAN.**

Se tomarán como base fundamental para la elaboración del Plan Especial Viario los principios de sostenibilidad y objetivos ambientales contenidos en:

- a) El propio Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.
- b) La Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible.
- c) El Programa Bizkaia 21 de la Diputación Foral de Bizkaia.
- d) La Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.
- e) La Ley 16/1994, de 30 de junio, de conservación de la naturaleza del País Vasco.
- f) La Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del

Naturalari eta Biodibertsitateari buruzkoa.

g) 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa.

h) 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesteari buruzkoa.

i) 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoru eta hirigintzari buruzkoa.

j) 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.

#### **2.1- Iraunkortasun oinarriak.**

Bideen Plan Berezia burutzeko ardatz eta ildo nagusi izan behar duten oinarriak dira, gutxienez, ondoko artikulua haueetan ezarri direnak:

1) 1 eta 2. artikulua, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak; horren bidez plan eta egitarauen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura erregulatu da.

2) 99, 100 eta 107. artikulua, Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeak.

3) 3. artikulua, 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.

4) 2 eta 10. artikulua, 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesteari buruzkoa.

5) 2, 5, 23, 25, 28, 30, 69 eta 83. artikulua, 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babestekoa.

6) 2. artikulua, 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura

Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

g) La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

h) El Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo.

i) La Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

j) La Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria.

#### **2.1- Principios de sostenibilidad.**

Deben ser principios inspiradores para el Plan Especial Viario, al menos, los establecidos en los siguientes artículos:

1) Artículos 1 y 2 del propio Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.

2) Artículos 99, 100 y 107 de la Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible.

3) Artículo 3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

4) Artículos 2 y 10 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo.

5) Artículos 2, 5, 23, 25, 28, 30, 69 y 83 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

6) Artículo 2 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de conservación de la naturaleza del

babesten duena.

7) 2. artikulua, 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzkoa.

8) 3. artikulua, 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa.

### **2.2.- Ingurumeneko helburuak.**

211/2012 Dekretuko V. eranskinean ezarri diren planeko ingurumeneko helburuei, bete eta igorrita, honako Erreferentzia Agiri honen hirugarren idatz-zatian ezarri direnak batuko zaizkie.

### **2.3.- Adierazleak.**

Hasierako agirian planteatu direnak ez ezik, ondoko adierazle hauek ezarriko dira:

a) Esparruko udalerrietan ibilgailu pribatuz, herri garraioz, oinez eta bizikletaz egiten diren lekualdaketen kopurua.

b) Esparruko udalerrietan eskaria kudeatzeko burutu diren politiken kopurua.

c) Giroko zaratari dagokionez, ondoko adierazle hauek erabiliko dira:

- aplikagarriak diren kalitatezko helburuak baino altuagoen eraginpean dauden alde akustikoen kopurua.

- barruko esparruetan aplikagarriak diren kalitatezko helburuak betetzen ez dituzten eta etxebizitza, egoitza, ospitale, hezkuntza edo kulturaren arloko erabilerak dituzten eraikinen kopurua.

- aplikagarriak diren kalitatezko helburuak baino altuagoen eraginpean dauden

País Vasco.

7) Artículo 2 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

8) Artículo 3 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

### **2.2.- Objetivos ambientales.**

A los objetivos ambientales del plan incluidos en el anexo V del Decreto 211/2012 cumplimentado remitido, se añadirán los recogidos en el apartado tercero de este Documento de Referencia.

### **2.3.- Indicadores.**

Además de los planteados en el Documento de Inicio, se incluirán los siguientes indicadores:

a) Nº de desplazamientos en vehículo privado, en transporte público, a pie y en bicicleta en los municipios del ámbito.

b) Número de políticas de gestión de la demanda llevadas a cabo en los municipios del entorno.

c) Respecto al ruido ambiental, se utilizarán los indicadores:

- nº de áreas acústicas expuestas a valores superiores a los objetivos de calidad acústica aplicables.

- nº de edificaciones destinadas a vivienda, usos residenciales, hospitalarios, educativos o culturales donde no se cumplen los objetivos de calidad acústica aplicables al espacio interior.

- población expuesta a niveles superiores a los objetivos de calidad acústica aplicables.

herritarren edo biztanleen kopuru.

d) Airearen kalitateari eta berotegi efektuko gasen emisioei dagokienez trafikoak sortarazten dituen emisioen jarraipena egingo da eta horretarako Ingurumeneko Europako Agentzia, "EMEP/EEA air pollutant emission inventory guidebook – 2009" delakoaren 9/2009 zenbakiko txosten teknikoan ezarri diren emisioen zenbatespenerako metodologia erabiliko da.

Adierazle horiek guztiek gaur egun duten balorea zehaztuko da eta plana aplikatu ondoren ustez izango duten balorea zenbatetsiko da; balore horiek ezarri diren helburu guztiak betetzearen jarraipen eta gainikuskapenaren erreferentzia izango dira.

### **3.- BIDEEN PLAN BEREZIAN INGURUMENEO ALDERDIAK INTEGRATZEARI DAGOKIONEZ.**

Helburuen definizioa da, inolako dudarik gabe, planeko erabakirik behinena eta, erabaki hori hartzeko, kontuan hartu behar dira ingurumeneko alderdiak. Aztergai dugun kasu honetan helburu nagusia ondoko hau da:

*"Unbeko gaur egungo saihebidetaren baldintzak hobetzea, zertarako-eta Uribe-Kostako saihebidetako trafikoa arintzeko eta, horrela, trafikoaren eskaria era ekitatiboagoan banatzeko, batez ere Metropoliko Oinarrizko Sarearen saturazio kasuak gertatzen direnean".*

Hau guztia gorabehera, hartuko diren erabakiek bat etorri beharko dute mugikortasun iraunkorra sustatzeko politiketako helburuekin. Helburu horiek Bizkaiko Errepideen Arlokako Lurralde Planean, lurzorua eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legean eta ekonomia iraunkorrari buruzko 2/2011 Legean daude jasota eta

d) Respecto a la calidad del aire y a las emisiones de gases de efecto invernadero, se realizará un seguimiento de las emisiones producidas por el tráfico, utilizando la metodología de estimación de emisiones establecida en el informe técnico número 9/2009 de la Agencia Europea de Medio Ambiente "EMEP/EEA air pollutant emission inventory guidebook – 2009".

Se determinará el valor de dichos indicadores en la actualidad y se estimará cuál va a ser su valor previsible tras la aplicación del plan, valores que servirán de referencia para el seguimiento y supervisión del cumplimiento de los objetivos marcados.

### **3.- SOBRE LA INTEGRACIÓN DE LOS ASPECTOS AMBIENTALES EN EL PLAN ESPECIAL VIARIO.**

La definición de objetivos es, sin duda, la decisión más importante del plan y, para tomarla, también deben tenerse en cuenta los aspectos ambientales. En el caso que nos ocupa, se establece como objetivo sustantivo el siguiente:

*"Mejorar las condiciones del actual corredor de Unbe para descargar de tráfico el corredor Uribe-Kosta y así repartir más equitativamente la demanda de tráfico, sobre todo en caso de saturación de la Red Básica Metropolitana".*

En cualquier caso, las decisiones que se tomen deberán adecuarse a los objetivos de las políticas de impulso de una movilidad sostenible. Dichos objetivos, recogidos en el Plan Territorial Sectorial de Carreteras de Bizkaia, en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo y en la Ley 2/2011 de Economía Sostenible, son:





ondoko hauek dira:

a) Mugikortasunaren hazkuntzari eustea, kontuan hartu behar delako gehiegizko mugikortasunak, batez ere ibilgailu pribatuaren neurririk gabeko erabilerarekin gertatzen bada, onartu ezinak diren kostuak (ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak) eragiten dituela.

b) Motoredun ibilgailuen derrigorrezko eta nahitaezko erabilera murriztea, ingurumenarekiko begirunetsuak diren garraio bideei lehentasuna emanda; hau guztia horien erabilera konbinatuaren plangintza eginda lortuko da.

c) Hiriko ingurumenaren eta herritarren osasunaren eta segurtasunaren hobekuntzan laguntzea, eta gauza bera ekonomiaren eragingarritasunari dagokionez; hau guztia bitarteko naturalen erabilera zentzuzkoagoaren bidez lor daiteke.

d) Hiria, ekonomia eta mugikortasunaren garapeneko politikak integratzea, horrela ohiko lekualdaketak gutxitzea lortuz eta oinarritzko zerbitzuekiko irisgarritasun eragingarria, eraginkorra eta segurua sustatzea ingurumeneko eraginik txikienarekin.

e) Energiaren kontsumoaren murrizketa eta eragingarritasun energetikoa sustatzea; ondore horretarako kontuan hartuko dira eskaeraren kudeaketa politikak.

f) Kostu sozial, ekonomiko, ingurumeneko eta energetiko gutxien sortarazten duten garraio bideak bultzatzea, hala pertsonenak nola merkatugaiak, eta taldeko garraio publikoen eta motorerik gabeko beste era batzuen erabilera sustatzea.

g) Garraio bide guztien arteko modalitatea eta intermodalitatea sustatzea, beti ere ibilgailu pribatuaren alternatiba izango diren

a) Contener el crecimiento de la movilidad, considerando que un exceso de movilidad, especialmente el uso indiscriminado del vehículo privado, genera costes económicos, sociales y ambientales inaceptables.

b) Reducir el uso forzado e innecesario de los vehículos motorizados, dando prioridad a los medios de transporte respetuosos con el medio ambiente, mediante la planificación de su uso combinado.

c) Contribuir a la mejora del medio ambiente urbano y la salud y seguridad de los ciudadanos y a la eficiencia de la economía gracias a un uso más racional de los recursos naturales.

d) Integrar las políticas de desarrollo urbano, económico, y de movilidad de modo que se minimicen los desplazamientos habituales y facilitar la accesibilidad eficaz, eficiente y segura a los servicios básicos con el mínimo impacto ambiental.

e) Promover la disminución del consumo de energía y la mejora de la eficiencia energética, para lo que se tendrán en cuenta políticas de gestión de la demanda.

f) Fomentar los medios de transporte de menor coste social, económico, ambiental y energético, tanto para personas como para mercancías, así como el uso de los transportes público y colectivo y otros modos no motorizados.

g) Fomentar la modalidad e intermodalidad de los diferentes medios de transporte, considerando el conjunto de redes y modos

beste era batzuen garapena bideratzeko garraio sareak eta moduak erabiliz.

Une hauetan baieztatu egin daiteke gaur egungo Unbeko Saihesbideko baldintzak hobetzeko aukerak, igorri den dokumentazio horretan planteatu den bezala, ez duela helburu horietara iristen laguntzen.

Beraz, zentzuzko alternatiben identifikazioa, deskripzioa eta ebaluazioa planteatu behar da, hau da, mugikortasun iraunkorra sustatzeko politiken helburuak betez, aldi berean analisi horren barruko nahitaezko eta ekidin ezineko helburuak aintzat hartuko dituen, besteak beste ondoko hauek:

a) Bideen sarearen hobekuntza eta ingurumenaren babesa bateragarri izatea.

b) Bideen sarea zerbitzu hori jasotzen duten alde guztietako bakoitzaren baldintza eta beharrezkoen egokitzea, ingurumeneko eta hirigintzako eraginak gutxituz.

c) Gaur egungo eta etorkizuneko errepideen sarea paisaiaren barruan integratzea. Azpiegiturako obrek, baldin eta horien eragina jasateko modukoa bada, natura eta paisaiari egokituta egongo dira.

d) Ahal den neurrian, saihestu egin behar da balore agrologiko altuko lurrak beste erabilera batzuetarako birkalifikatzea.

e) Erkidegoarentzako interesa duten habitaten narriadura ekiditea.

Gai horri dagokionez Ingurumen Foru Sail honetako Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuaren iritziz beharrezkoa da aurkeztu diren aparteko beste alternatiba bat, hau da, trazadura berriari proposatu diren lur-berdinketak eta betelanak arindu edo gutxitu egingo dituen, eta aukeran errepide berriari lur-berdinketa gutxiago egitea

de transporte que faciliten el desarrollo de modos alternativos al vehículo privado.

En este momento podemos afirmar que la opción de mejorar las condiciones del actual corredor de Unbe, tal y como está planteada en la documentación remitida, no contribuye a alcanzar estos objetivos.

Por tanto, se debe plantear una identificación, descripción y evaluación de alternativas razonables que, cumpliendo con los objetivos de las políticas de impulso de una movilidad sostenible, considere también como objetivos ineludibles de dicho análisis, entre otros, los siguientes:

a) Compatibilizar la mejora de la red viaria con el respeto y protección del medio ambiente.

b) Adecuar la red viaria a los condicionantes de cada zona servida, minimizando los impactos medioambientales y urbanísticos.

c) Integrar en el paisaje la red de carreteras actuales y futuras. Las obras de infraestructura, en caso de que su impacto sea asumible, han de adaptarse a la naturaleza y al paisaje.

d) Evitar, en la medida de lo posible, la recalificación para otros usos de los suelos de alto valor agrológico.

e) Evitar el deterioro de los hábitats de interés comunitario.

A este respecto, el Servicio de Patrimonio Natural de este Departamento Foral de Medio Ambiente estima necesaria la consideración de una alternativa diferente a las aportadas que minimice los desmontes y rellenos propuestos en el nuevo trazado, optándose por un menor movimiento de tierras en la nueva carretera. Señala, en todo



hautatuko lukeena. Dena dela, ezartzen du ezabatu eta kendu egin behar direla bere erantzunean identifikatuta dauden bisoi europarra artatzeko interes bereziko aldeak ukituko dituzten betelanak.

Ildo horretatik, Kasarreina eta Pozozabale arteko tartean zentzuzkoagoa litzateke inguruko mendiei egokitzea, kokatuta dagoen inguru fisikoari egokitu gabeko errepide bat betearaziko luketen jarduketa bortitz eta erasokorragoak saihestuz.

Beste alde batetik, agian zentzuzkoagoa litzateke Urdulizko saihebidereen zati bat ez egitea, hau da, harik-eta delako saihebidereen proiektu hori, orokorrean, ingurumenaren ikuspegitik ebaluatu arte. Tarte horren betearazpenak, Plan Berezian planteatu den bezala, gehiegi baldintzatuko luke delako saihebidere horretarako etorkizuneko alternatiben analisia eta mugatu egingo litzuzke horien ustezko irtenbideak, batez ere eta bereziki zero alternatibari dagokionez. Gai honi lotuta eta planean ezarri den aukerari buruz, Ingurumen Foru Sail honetako Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak adierazi du kendu egin behar direla euren erantzunean horrela identifikatu diren bisoi europarra artatzeko interes bereziko aldeak ukitzen dituzten betelanak.

